



Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza, 2 - Tel. 943483750 - Faxe 943483765 - udala_euskara@donostia.eus - www.donostiaeuskaraz.eus - www.donostia.eus
20003 Donostia

Euskararen Kontseilu Sektoriala - Ohiko Bilkura -

Data eta lekua:	2016ko azaroaren 22an Udaletxeko Tokiko Gobernu Batzarraren Gela
Hasiera eta amaiera ordua:	18:30-20:00

BERTARATUAK:

Talde politikoak:

LEHENDAKARITZA: Miren Azkarate_EAJ-PNV (2016 Hiriburutzako, Kulturako, Euskarako eta Hezkuntzako zinegotzi ordezkari)za)
Nerea Txapartegi_EH BILDU
Aitziber San Roman_EAJ

Elkarteak, Hiritarrak eta Gizarte-ospe bereziko pertsona edo kolektiboak:

BAGERA ELKARTEA
BATZEN
BIZARRAIN ELKARTEA
URTXINTXA
BERRITZEGUNEA
GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEA
REALA
KUTXABANK
Herritar Norbanakoa 1
Herritar Norbanakoa 2

Euskara Zerbitzuaren langileak:

Edurne Otamendi (Zerbitzu burua)
Alex Aisa (Atal burua)

EZ ZIREN BERTARATU:

PPko ORDEZKARIA
ULIAKO AUZO ELKARTEA
AEKko ORDEZKARIA (ezin etorria adierazi du)
LABeko ORDEZKARIA
SAN SEBASTIAN SHOPSeKo ORDEZKARIA (ezin etorria adierazi du)
EUSKADIKO KUTXAko ORDEZKARIA (ezin etorria adierazi du)
IRABAZI taldea
EHUko ORDEZKARIA (ezin etorria adierazi du)
PSE-EEko ORDEZKARIA (ezin etorria adierazi du)



1.- Aurreko bileraren akta onartzea

Aurreko akta onartu da.

2.-Merkataritza eta Ostalaritza, Kirola eta Hizkuntzen erabilera-jarraibideak lantzeko lantaldeen berri ematea.

Lehendakariak "Merkataritzan eta ostalaritzan ere euskaraz" egitasmoaren laburpena egin du eta datu esanguratsuenak gogoratu ditu:

-2016an Gros, Egia, Amara Berri eta Loiolako Erribera auzoetako establezimenduak bisitatu dira.

-Egitasmoa abian jarri zenetik 4.108 establezimendu bisitatu dira, horietatik 1.712k (%41,67) baldintzak betetzen dituzte, hau da, establezimendu horietako bezeroei arreta eskaintzen ari diren langileen erdiek euskaraz badakite.

-1.712 saltegietatik %64 atxiki dira egitasmora, hau da, 1098.

-Datorren urtean bisitak egiten jarraituko du Euskara Zerbitzuak oraindik bisitatu gabe dauden auzoetan: Altza, Añorga, Igeldo, Loiola eta Martutene.

Lehendakariak jarraian, kirolaren alorrean eman diren urratsak azaldu ditu:

-Donostiako 18 kirol elkarteetan egindako diagnostikoaren berri eman du, gogoratuz diagnostiko hori aurkezteko hiriko kirol elkarteak ekitaldi batera gonbidatu zirela.

-Añorgan inplementatzen ari den KEES (Kirol entrenamenduetan euskara erabiltzeko) metodologiaren berri eman eta 2016-2017an beste sei kirol elkarteetako (Atletiko SS, Askatuak, Easo saskibaloia taldea, Fortuna KE, Bera Bera eta Egia eskubaloia taldea) hainbat taldetan martxan jarriko dela esan du.

Batzeneko ordezkariaren iritziz, diagnostikoa aurkezteko antolatutako ekitaldia oso positiboa eta egokia izan zen eta mezu argia eman zitzaion bertaratu ziren hiriko kirol elkartei.

Lehendakariak azkenik, Hizkuntzen erabilera-jarraibideak lantzeko lantaldeak egindako lanaren berri eman du. Donostia Turismo, Donostia Kultura, Donostia 2016, Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteak, Shopss San Sebastián, Bagera eta Talde politikoetako ordezkariak izan dira lan taldeak. Hiru bilera egin eta gero, dokumentu bat adostu da eta dokumentu hori Euskararen Kontseilu Sektorialari aurkezteko zaila izan da. Behin onartu eta gero, zabalkundea eman beharko zaio: eskuorriren bat kaleratuz, web bidez eta abar.

Batzeneko ordezkariak adierazi du garrantzitsua dela lau hizkuntzak (euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa) nola erabili behar diren aztertzea izana eta jarraibideak adostu eta jaso izana. Aldi berean, bere ustez, jarraibide horiek betetzen ote diren jakiteko jarraipena bat egitea beharrezkoa da, xaxoi batean gordeta gero ez daitezen.

EH Bilduko ordezkariak beharrezko ikusten du zabalkundea ondo egitea. Bide horretan, udal egiturekin edota udalarekin lotura dutenekin (enpresa publikoak, eta abar) jorratu beharko litzateke gaia. Esate baterako, jarraibide hauek beraie euskaraz planetan txertatzea izan daiteke neurrietako bat.

Gai horri tiraka, Udaleko Euskara Zerbitzuko buruak esan du Donostia Turismok jada kontuan hartu dituela jarraibide horiek bere planean.

EH Bilduko ordezkariak, bestalde, oharretan argibide gehiago behar direla esan du, lotura batzuk hobeto egin eta abar. Bestalde, 5. orrialdean, Nafarroa eta Iparraldeko egoerari buruzko testuan zuzenketa bat egin behar dela adierazi du.

Euskara Zerbitzuko buruak horiek zuzendu eta hobetzeko konpromisoa hartu du.



Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza, 2 - Tel. 943483750 - Faxe 943483765 - udala_euskara@donostia.eus - www.donostiaeuskaraz.eus - www.donostia.eus
20003 Donostia

Kutxabank-eko ordezkariak adierazi du Gipuzkoako Foru Aldundia honekin lotura duen gai bat jorratzen ari dela, "Jendaurrean erabili".

Euskara Zerbitzuko buruak argitu du Udala ere egitasmo horretan parte hartzen ari dela baina "Jendaurrean erabili" egitasmoa gehiago dagoela zuzenduta jendaurreko euskararen erabilera nolakoa izan behar duen lantzeraz eta hizkuntzen erabilera-jarraibideak al-diz, lau hizkuntzen erabilera egokia izan dadin jarraibideak finkatzera.

Lehendakariak jakinarazi du behin betiko dokumentua adostu eta gero, zenbait erakunderi jakinarazi eta helaraziko zaiela eredu honen berri izan dezaten (Uema, Eudel, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta abar).

Batzeneko ordezkariak esan du webgune bat hainbat hizkuntzatan ikus daitekeenean lehenetsuna euskarari eman beharko litzaiokeela.

Lehendakariak erantzun du gai hori lan taldean jorratu dela, konfiguratu ahal den guztietan euskaraz egin dela baina teknikoki zenbaitetan mugak daudela. Erabiltzaile batek web bat zabaltzen duenean bi aldagaien arabera aukeratzen da hizkuntza:

1-Erabiltzaileak lehenetsita duen hizkuntza.

2-Erabiltzaileak interneten egin duen azken sarreraren erabilitako hizkuntzaren arrastoak ere eragina izaten du.

Lehendakariak azkenik, dokumentua lasai begiratzeko eta nahi diren oharak egiteko 15 eguneko epea eman du. Horren ostean, Euskara Zerbitzua zabalkundearekin hasiko da.

3.- Euskara Zerbitzuaren 2017ko aurrekontu proiektuaren berri ematea

Lehendakariak 2017ko aurrekontu proiektuaren berri eman du Euskararen Plan Orokorren esparru nagusiak kontuan hartuta eta bigarren zein laugarren kapituluko gastuak berezitu-ta. Horrez gain, Itzulpen ataleko aurrekontua ere azaldu da. Kasu honetan gainera, 2017an diru gehiago beharko dela aurreikusita da, horrela izan baita dagoeneko 2016an. Aurtengo ekitaldian 61.000 €tan handitu behar izan da kanpoko enpresek egiten dituzten itzulpenak ordaintzeko kontu-saila eta datu hori hartu da oinarri 2017ko aurrekontua egiteko. Aldibereko itzulpen saioak asko igo dira azken urtean eta baita idatzizko itzulpen lana ere. Bertako langileek ezin diote guztiari aurre egin eta kanpoko enpresetara jo behar izaten da.

Guztira, Euskara Zerbitzuaren aurrekontuak 2017an ia 100.000 euroko igoera izango duela azaldu du Euskara Zerbitzuaren buruak.

EH Bilduko ordezkariak aipatu du euskalduntze gastuetarako igoerarik ez al den aurreikusten.

Zerbitzuaren buruak erantzun dio eskaera handitu egin zela 2016an xede bereziko ikastaroak egiteko eta, hori dela eta, euskaltegiei laguntza gehiago eman zaiela ikastaro hauek aurrera eramateko 2016an, 42.255 €tik 47.255 €ra igo da gastatutakoa. 2017rako egonkortu egin dela kopuru hori adierazi du baina beste igoerarik ez dela aurreikusi.



Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza, 2 - Tel. 943483750 - Faxe 943483765 - udala_euskara@donostia.eus - www.donostiaeuskaraz.eus - www.donostia.eus
20003 Donostia

4.- Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko antolatu den egitaraua azaltzea

Zer egin dezaket nik euskararen alde? Lelopean eta auzo batzordeekin elkarlanean antolatutako egitaraua azaldu da. Horrez gain, gogoratu da abenduaren 2an "Zer egin dezaket nik euskararen alde? 2016 adibide" ekitaldi instituzionala antolatuko dela Udaletxean.

1. Herrira Norbanakoak adierazi du atentzioa eman diola hamaika "mintzapoteo" eta antzeko ekitaldi antolatu izana.

Lehendakariak azkenik gogora ekarri du abenduaren 15ean eta 16an egingo den Europako Hizkuntza Aniztasunaren Foroa eta abenduaren 17an aurkeztuko den Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa.

Eta horrela, bilera bukatutzat eman da.